


Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jaietako Kandido eta kantinera etxe berekoak dira

2014ko ekainaren 27a, 404 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

KALETXIKIKO JAIK ASTEBURUAN

Parte hartze handia bost egunez luzatu diren San Juan jaietan

“Cavaldeath” Castello aldetik ekarritako su ikuskizunarekin amaitu ziren jaiak Andoainen.

Euriak bere agerpena egin zuen arren, ia hitzordu gehienak bere horretan burutu dira. Hainbat ekitaldi, gainera, partaide eta ikusle aldetik arrakastatsuak izan dira: Jaien hasiera, batukada, kontzejupekoa, txirindulari lasterketaren amaiera, haur danborrada, Salbe Gorena, San Juan sua, Axeri-dantza edota jaiari amaiera eman zion “Cavaldeath” ikuskizuna. Piroteknian oinarrituriko ikuskizuna geroz eta herritar gehiagoren interesa pizten ari da.

San Juan jaien amaierarekin udako jaien errondari hasiera emango zaio Andoainen. Asteburu honetan, esaterako, Kaletxikiko jaiak ospatuko dira. Ohiko ekitaldiez gain, aurtengo berezia izango da Gora Kaletxiki txarangarentzat sortu zeneko hamargarren urteurrena emanaldi bereziarekin ospatuko dutelako. Kandido eta txikitxoaren etorrera edota Ontza-Batzokia elkartearen arteko desafioa Kaletxikiko jaien



San Juan eguna eta jaiak Cavaldeath ikuskizunarekin amaitu ziren.

Asteburu honetan jaien lekukoa Kaletxikiko auzotarrek hartuko dute

bereizgarri bihurtu dira, goizaldean eskaintzen duten oialako hotza eta txanpainarekin batera.

Karrikako jaiak, bestalde, uztailaren 18tik 20ra ospatuko dira aurtan.

[GEHIGARRI BEREZIA]



San Juan suaren inguruko ospakizuna Urnietako Plazido Muxika plazan.



Urnietako sorosleak

Ander Peñagarikano eta Ruben Villalon Urnietako igerilekuko sorosleak dira.

[URNIETA, 3.ORRIALDEA]



Iturzaeta memoriala

Txapelketa osoan zehar bezala, Arozena-Zabala bikotea jaun eta jabe izan da.

[KIROLA, 6.ORRIALDEA]



Gora Andoain Gora Sanjuanak!!

Jai egun ederrak igaro ditugu adiskidetasun giroan. Antolatzaileok, andoaindarrok, bisitariok..., bejondeizuela.

Zorionak!

Andoaingo Udala



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Gure etxeak aurretik leihoak

Guk herritar eta pertsona bezala gauza on asko ditugu eta onartu egun behar ditugu. Baina akats batzuk ere badauzkagu eta erremediatu egin behar ditugu. Aurreratzea gauza baikorrak ezagutzea eta onartzea da eta akatsak, joerak, ohiturak ezagutzea eta erremediatzea. Ez bata eta ez bestea ez dugu egiten. Ez gauza onak ezagutu eta onartu, ezta ere gauza txarrak ezagutu eta kentzen saiatu. Harri-garria! Ezta gauza onak aitortu ere.

Bertsolari bat ezagutu nuen, behar bada gure lurrrak sortu duen egokiena: M. Lasarte; eta beti jarduten zanean esanez: ez gera ezer, ahal deguna egiten degu baina gutxi da dezakeguna, etab., hau da, zen baino gutxiagokotzat bere burua azaltzekoa. Hau da gure ohitura txar bat, ia denok daukaguna. Onartzen badet

“Gure burua onez onean hartu behar degu. Zorrotzegiak, estuegiak gera gure buruarekin. Baita ere estu eta estugarri”

abilezia badetala harroa naizela esango didate eta euskaldun batentzat harroa dela esatea baino pekatu handiagorik ez da. Orduan, zer egiten dugu? Nire abilezia ukatu.

Berdin egiten dute pelotariak ere: suertea izan det, nire lagunak ondo jokatu du, besteek ez dute egun ona izan... Nire dohaina ukatzen nire burua ukatzen ari naiz, gezurrezko jokoan sartuta bizi naiz. Harroa da naizen baino gehiago naizela aitortzea, gutxiago naizela baderitzot gezurtia naiz berri. Garena azaltzeko ez dugu beldurrik behar. Gure sortzailea ez dugu ukatu behar. Gure dohainak, osasuna eta abar emanak dira, oparituak. Diximulatzeko esaten dugu: gure etxeak aurretik leihoak.

Jendeari umila, laua izatea gustatzen zaiolako ez degu umil edo apalarena egin behar, geure gauza onak ukatuz. Gure burua onez onean hartu behar degu. Zorrotzegiak, estuegiak gera gure buruarekin. Baita ere estu eta estugarri. Geure burua baloratzen, bere balioa ematen ikasi behar dugu.

Udako aisialdiaz gozatzeko aukera zabalik dago



Gaztelekuak, urtero bezala, eskaintza oparoa egiten du udan.

Udalak jakinarazi duenez, Gaztelekuak eskaintzen duen udako programazio zabalaren izena emateko aukerak zabalik jarraitzen du. Interesatuak Bertan bulegora jo behar dute edota 943 00 80 00 telefono zenbakira

deitu. Uztailaren 9ra arte hainbat jarduera burutuko dira Gaztelekuetan bertan.

Uztailaren 14tik aurrera “Udabentura” ekimena hasiko da eta astebete geroago “Gipuzkoa argazkietan” ize-nekoa.

Foru Aldundiak urte honetarako protokoloa aurkeztu du

Liztorren habiak kentzeko ardura Udalen esku dago

Tamaina handiko liztorra, “asiarra” lehen eta “beltza” orain, arazo handi bilakatu da Gipuzkoan. Ekosistema inaurazteko beharrezkoak diren erleekin akabatzeaz gain, mehatxu izan daitezke pertsonentzat. Liztor beltzari aurre egiteko 2014ko kanpainan tokian tokiko Udalari ardura hartzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko landa garapenerako lansailak. Habia kendu eta liztorrekin amaitzeko prozedura, beraz, Urnietako eta Andoaingo Udalen esku egongo da.

Aurreko astean igorritako oharren arabera, “Gipuzkoako Foru Aldundiak protokolo berria jarri du abian lurraldeko Udalekin, guztien artean, liztor beltz edo asiarraren aurka lan eraginkorragoa egiteko. Aldaketa nagusia da, hemendik aurrera, habi bat aurkitzen denean, lehen deia tokian tokiko udalera egin beharko dela. Han, dago-kion arduradunak erabakiko du egoera bakoitzaren aurrean zein jokabide hartu”.

2014an zehar agindutakoaren arabera eta liztorren habiaren kokapenaren arabera, habia deusezteko bi moduren artean aukeratu beharko da:

- Aga edo pertikaren bidez, habiaren barrualdean intsektizida txertatuz. Herri barruko tokietan aplikatzeko egokia izan daiteke. Liztorren habian intsektizida sartu ondoren, ez da kendu beharrik izango. Aldundiak adierazi duenez lan



2014an Udalek ardura handiagoa izango dute, eta suhiltzaileek soilik premiako kasuetan.

horiek egiteko prestaketa ikastaroak egin dira eta, beti, gutxienez binakako taldeetan egingo dira, segurtasun jantziez babestuta.

- Habia tirokatuz. Aldundiaren arabera, “metodo hori azken baliabide modura erabiliko da. Tiratzaile taldeetan udaltzainek parte hartu behar dute beti. Taldekideek arma baimena eduki behar dute nahitaez, aseguratuta egongo dira eta Aldundiaren baimena eduki beharko dute. Gainera, jardura egiteko segurtasun neurri guztiak hartu behar dira. Taldekideak habiak suntsitzeko oinarrizko heziketa hartzea behartuta daude”.

Aurreko urteetan suhiltzaileek lan hadia egin zuten habiak desagertarazten. Aurten suhiltzaileen jarduna mugatua izan-

Liztor beltzari aurre egiteko kanpainan tokian tokiko Udalari ardura hartzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak

go da: larrialdi gisa katalogatutako egoeratan, premia handiz ezabatu behar denean habia edo habiaren edo inguruaren ezaugarri bereziak, babeserako neurri bereziak behar dituztenean.

Udalen eta suhiltzaileen jardueren jarraipena aplikazio informatiko baten bitartez egingo da.

Hori izango da habien suntsitze prozesuaren gestioan parte hartzen duten eragileak koordinatzeko eta une bakoitzeko egoera ezagutzeko tresna nagusia.

Bidegorria ikastetxeraino

Salesiar ikastetxera iristeko bidegorria laster ikusiko dute urnietarrek. Hori ondoriozta daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorrien sarea osatzeko diru laguntza lerroa erabaki

duelako eta tartean Salesiar ikastetxeraino iritsiko litzatekeena kontuan hartu dute. Urnietako Udalak 223.207,82 euroko aurrekontua aurkeztu zuen eta Aldundiak aste hone-

tan 25.883,46 euroko dirulaguntza emango diola jakinarazi du.

Foru Aldundiak, besteak beste, mugikortasun iraunkorra lortzea du helburu.

Mintzapraktika saioak Banaiz Bagara taldearekin

Ekainaren 30etik aurrera Andoainen ostiralero arratsaldeko 15:30etan bilduko dira Jubilatuen egoitzan. Urnietan,

berriz, asteko bi hitzordu ipini ditze Lekaion: astelehenero goizeko 09:15etan eta osteguneroko 19:30etan.

Informazio gehiago: 645 733 818. 943 331 455. banaiga@gmail.com

Uztailean espero dute jenderik gehien hurbiltzea igerilekuan

Uda honetako zaindariak



Ander Peñagarikano eta Ruben Villalón Urnietako igerilekuko sorosleak dira.

Udako lehen eguzki printzak ateratzearekin batera, lanean hasi dira Ander Peñagarikano eta Ruben Villalón Urnietako igerilekuko sorosleak. Ekainaren erdialdean kanpoko igerilekua ireki dutenez, sorosle lanaz eta uda denboraldiaz hitz egin dute Aiurriekin.

Denboraldi hasiera honetan jendea etorri al da? Noizko espero duzue etorriko dela jende gehien?

Ander Peñagarikano: Ekainaren 15ean ireki genuen kanpoko igerilekua eta azken bi aste hauetan jendea bildu den arren, uztailean izaten da igerilekuan jenderik gehien. Orduan hasten da kanpoko jendea etortzen, batez ere, Usurbildik eta Lasartetik.

Ruben Villalón: Ikasleek ekainaren amaieran amaitu dituzte ikasketak eta orain hasiko dira maizago etortzen. Gainera, abuztuan jendeak kanpora joateko ohitura du, eta, ondorioz, uztailean izaten da mugimendurik handiena. Edonola ere, igerilekua irailaren erdira arte egongo da irekita.

Zein da zuen eguneroko lana?

A.P.: Goizeko 9:30etan sartzen gara lanera eta 10:00etan irekitzen ditugu igerilekuko ateak. Ordu erdi horretan ura zein egoeratan dagoen kontrolatzen dugu. Jendea etorri ahala, zainketa lanetan hasten gara: jendearen inguruan ibili, arriskuez ohartarazi, arauak errespetatuarazi... Igerilekuan jende asko dagoenean, ezinezkoa da den gainean egotea. Horregatik, arrisku handiena duten

pertsona taldeei erreparatzen diegu; hurrei, adinekoei eta haurdun daudenei, gehienbat.

R.V.: Talde horietatik arriskuetsuenak gazteak izaten dira normalean, 15 urte ingurukoak. Ondo pasatzera etortzen dira, baina beraiantzat ondo pasatzea eta salto egitea, korrika egitea, uretan borrokan ibiltzea da... Hori izaten da arriskuetsuena, bai beraiantzat, baita beraien ingurukoentzat ere.

Izan al duzue inoiz sustorik?

A.P.: Noiz edo noiz izan dugu, baina susto handirik ez. Haur txikiren batek ihes egin eta igerileku handira erori izan da noizbait. Horrez gain, ez dugu inolako ezbeharririk izan.

R.V.: Zorionez ez dugu inoiz uretara salto egin behar izan. Harritzekoa da, izan ere, uztailean inguruan igerilekura jende asko etortzen da. Bete egiten da eta mugimendu handia egoten da; baina ez da sekula ezer larririk gertatu.

Zein dira igerilekuan bete behar diren arau nagusiak eta ematen dituzuen aholkuak?

A.P.: Arauak ohikoak dira: korrika ez egitea, ez bultzatzea, txiribueltarik ez egitea, jendea uretara ez botatzea... Formaltasunez ibil daitezten eskatzen diegu, esate baterako, uretara sartu aurretik inguruan beste norbait dagoen begiratzeko eta hurrekin kontuz ibiltzeko.

R.V.: Txanoa derrigorrezkoa da eta uretara sartu baino lehen dutxatu egin behar da. Horrez gain, testuinguruaren arabera eta igerilekuan dagoen jendea-

"Korrika ez egitea, ez bultzatzea, txiribueltarik ez egitea, jendea uretara ez botatzea... Formaltasunez ibiltzea eskatzen dugu"

ren arabera antolatzen gara, arriskua non dagoen ikusten dugu eta horren baitako aginduak ematen ditugu. Arau ohikoak honakoak dira: korrika ez egitea, aguadillak ez egitea, baloirik ez ibiltzea... Baina egunaren arabera agindu bat edo beste ematen dugu. Igerilekua lasai dagoenean beteta dagoenean baino malguagoak izaten gara, eta, agian, egun batean uzten ez dugun gauzaren bat uzten diegu hurrengoan. Azken batean, testuingurura moldatzen gara.

Zein dira sorosle izatearen alde onak eta txarrak?

R.V.: Nire ustez, gauzarik hobereana jendearekin dugun harremana da. Urtean zehar ere hemen lan egiten dugu eta dagoeneko igerilekura etortzen direnek ezagutzen gaituzte. Horregatik, jendearekin hitz egitea, harremana izatea eta konfiatza edukitzea gustatzen zaigu. Bestalde, ordea, batzuetan polizia lanak egin beharra izatea ez zaigu horrenbeste gustatzen.

Mundu guztiak ez gaitu ulertzen; normalean bakoitzak bere errealitatea soilik ikusten du, eta guk errealitate osoa ikusi behar dugu. Horrek aginduak ematera bultzatzen gaituzte, desatsegina izaten da.

Gazteek deituriko asanblada ekainaren 27rako

Ostiral honetan arratsaldeko 18:00etan asanblada deitu dute eta ondoren pintxo po-

tea iragarri, San Juan plazan hasi eta eta Idiazabal kale-raino.

Bertso saioa Besabin

Uztailaren 4an Goiburuko Besabi jatetxean bertso afaria antolatu dute, Sustrai Colina

eta Amets Arzallusen parte hartzearekin. Txartelak salgai: Kantoi, Besabi, Xauxar.

Falcons de Vilafranca taldea larunbatean San Juan plazan



San Juan plazan horrelako irudiak ikusi ahal izango dira.

Egape dantza taldea ez da gel-dirik egoteko jaio eta larunbat honetan euskal dantzak eta Kataluniako tradizioak uztartuko dituzte "In-Fusioak" ekimenaren baitan. Arratsaldeko 18:30etarako giza irudiak osatzen dituzten Falcons de Vilafranca-ko kideek erakustaldia eskainiko dute San Juan plazan. Kataluniako zapelatzek Castellers taldeen antzeko ikuskizuna eskainiko dute, baina bereizgarri ezberdinekin. Batzuk besteen gainean

igoz irudiak osatzen dituzte. Altuera, oreka, indarra..., hainbat ezaugarri kontuan harturik irudi ikusgarriak lortzen dituzte.

Ikusizun horren aurretik eta ondoren, Sarobeko taula gainean Egapek dantza koreografi berritzaileak eskainiko ditu. Bi saio eskainiko dituzte. Lehena, 17:00etan hasita, familia eta lagunartekoei zuzenduta. Bigarrena, 19:30etik aurrera herritarrei eta dantzazaleei begira.

Eskelak,
hileta-oharrak
Aiurri
astekarian

@ diseinua@aiurri.com | ☎ 943 300 732

SUAK ESKAINITAKO IKUSKIZUNA PLAZIDO MUXIKA PLAZAN

San Juan sua Urnietan

San Juan suak ikuskizun paregabea eskaini ohi du Plazido Muxika plazan, eta ehunka herrikidek ez du hutsik egiten hitzordura. Sua ikusgarria izan ohi da, su garren beroa metro askora nabaritzen de-

na. Euriaren mehatxua hor egon arren, sua piztu eta suaz gozatzeko arazorik ez zen izan. Azken urteotan ohikoa denez, Denda Berriko lehendakari Lupe Martiarenak piztu zuen sua.



Benetako larrua zuen ardiaren irudia ipini zuten gaialdean. Itxura dotorea zuen.



Ordubete lehenago herritarrek hurbilduz joan ziren Plazido Muxika plazara.



Arratsaldean su txiki asko ikus zitezkeen Urnietako auzo eta baserri askotan. Ke txiki ugari zegoen.



Dantzari gazteak eta Txanbolin taldeko kideak, sua piztu aurretik.



Taula gainetik egin beharrean, herritarren artean aritu ziren Txanbolin taldeko kideak.



Su garrak handitu ahala berotasuna handituz joan zen, ikusleak metro batzuk atzera egitera behartu arte.



Danbor hotsak oporraldia iragarritz

2014, ekaina



San Juan jaiak gogora ekartzeko

bide zuzena



Aiurri

www.aiurri.com



Pregoiarekin gorazarrea bost belaunaldiri

ZABALIK DAGOEN TABERNARIK ZAHARRENA HAIENA DA. FAMILIA ETA NEGOZIO ASKI EZAGUNAK DITUZTE ELIZONDOTARREK. FAMILIAKIDE OSOAREN IZENEAN, JAI EI HASIERA EMATEKO PREGOIA JOSE LUIS ELIZONDOK IRAKURRI ZUEN.

Birraitonak, aiton-amonak, gurasoak..., Jose Luis Elizondo laugarren belaunaldikoa da eta bera izan zen pregoia irakurtzeaz arduratu zena. Ondorengo belaunaldia, bosgarrena, alboan zuela hartu zuen hitza Jose Luisek: “Pozgarria da Andoaingo herritar batentzat bere herriko jaiari hasiera ematea. Zoriondu egin nahi ditugu proposatu zituzten beste hautagaiak: meritu handikoak zarete eta zuen lanaren bitartez Andoaingo herria hobetzen duzue. Guri dago-kigunez, zer esan dagoeneko ez dakizue-nik? Egun hauetan hainbat egunkaritan ager-tu gara, baina honakoa esan behar da: lehen-dabiziko Elizondo Adunatik etorri zela gaur arte 120 urte igaro dira, gutxi gora-behera. Baliteke ondoan ditudan haur eta gaztetxo hauek beste 120 urterri hasiera ematea. Nahiko latosoak garela esango duzue, baina lasai, nik ere horixe pentsatu izan dut behin baino gehiagotan. Bost egun ditugu aurretik. Andoaingo Sanjuanak dira munduan ditugun festarik ederrenak, garrantzitsuenak, ikusgarrienak eta alaienak. Hala ez bada ere, zuek hori esan, esatea dohainik da eta. Ana Carrere alkateak esan zuen papera botako zuela sutara, krisi latz hau betiko erre dadin desiratuz. Festak ando-



Elizondotarren hirugarren, laugarren eta bosgarren belaunaldia igo zen pregoia irakurtzera.

aingar guztiei eskaini nahi dizkiet, arrazoi ezberdinengatik hemen egon ezin dutenei. Hau ez da Leitza edo Iruñeako plaza, baina odol nafarra dugunez zainetan, Nafarroan hainbat eta hainbat festetan egiten duten bezala, zapi gorria izango banu beza-

la bota nahiko nuke txupinazoa. Gora Ama Kandida! Aupa Eibar! Eta gora San Juan, gora San Juan eta gora San Juan!”.

Jarraian, elizondotarren belaunaldi berrietako haur batek Aitor Mendiluzeren bertsoa irakurri zuen:

“Odol nafarra dugunez zainetan, Nafarroan hainbat eta hainbat festetan egiten duten bezala, zapi gorria izango banu bezala bota nahiko nuke txupinazoa. Gora Ama Kandida! Aupa Eibar! Eta gora San Juan!”

“San Juan jaiak iritsi zaizkigu herrira, andoindar guztiak animatu dira. Sua eta musika, kirolak eta gu, ederki pasatzeko aukera daukagu. Axeri dantza plazan ohitura hori da, animatu zaitezke plazaren erdira. Umeentzat haur jolasak prestatu dituzte, gu ere festan parte hartzea nahi gaituzte. San Juanetan festa ez zaigu faltako, zerbait badago gustu guztietarako. Giroa izango da goizetik gauera eta aprobetxatzen saiatuko gera. Umerez eta gogoz iraun bitartean festa egingo dugu guztien artean. Kanpotik datozenak ongi etorriak, denentzat lekua du gure herriak, gurea da herria, gurea da plaza, animatu guztiak eta ondo pasa”.



Haurrak eta erraldoiak festazaleak dira, tamaina berean.



Goiaplaza inguruan giroa alaitzeko ezinbestekoak dira erraldoiak eta buruhandiak.



Urkiko dantzari taldea, San Juan jaiaren hasierako ekitaldian hasteko prest.



Olagain txistulari banda euriagatik Kontzejupean eskaini zuten emanaldian.



Harrera beroa batukada feministari

IKUSLEEN ARRETA PIZTU DUTE AURTENGO JAIETAN. ENTSEGU GUTXI EGIN ARREN, ERRITMOAK SORTZEN ONDOTXO MOLDATU ZIREN. IKUSTEAR DAGO EKIMENA JAIETARA BAKARRIK MUGATUKO DEN EDOTA SAIO GEHIAGO EGINGO DITUZTEN.

Martxoan Udalak Berdintasun planaren baitan, besteak beste, batukada tailerra martxan jarriko zuela iragarri zuen. Jaiek herritar askoren interesa piztu ohi dute eta zer hobea San Juan jaietako hitzordu batean protagonista izatea baino. Deialdia egin eta jaietan ikusi ahal izan denez, batukadarako talde polita osatu zen. Entsegu sorta egin eta gero, kalera irten ziren prestatu ahal izan dutena herritarrei eskaini asmoz.

Pozik eta gogotsu abiatu ziren Goikoplazatik, kantu bakoitza ahalik eta ondoren jotzeko erantzukizunarekin. Urduritasunak alde batera utzi eta kalearen jabe egin zirela esan daiteke. Kalea musika egiten zuen emakumezko taldeak bereganatu zuen.

Antza denez, batukadarena ez da jaietara bakarrik mugatuko. Partaide askok esperientziarekin gozatu dute eta nonbait herriko auzoren batetik edo bestetik saioa eskaintzeko proposamenak jaso dituzte. Ez litzateke txarra izango, esperientzia honetatik talde finkoa osatzea. Sortu edo ez, egindakoak merezi izan duen sentsazioarekin geratu dira ekimenaren sustatzaileak eta partaideak. Ez da gutxi.



Goian, ezkerretik eskubira: Miren, Ainara, Sara, Yera, Arantxa, Arantxa, Margui, Kristina, Atsegiñe, Ekhiñe, Sara, Fer, Gabone, Arantxa, Elixane, Maddi, Izaro, Ana. Behean: Maria, Esti, Ana, Uxue, Koro, Ianire, Maite, Rakel, Garazi eta Elena.



Herri bazkaria, auzoetako jai batzorde guztien bilgunea.



Bakartxo Arabaolaza eta euren ikasleek saio ikusgarria eskaini zuten, euriak utzi bitartean.



Apar festa, haur askok gozatzeko moduko jarduera Joseba Arabaolazaren apar-makinarekin.



Triana elkarteko abesbatzak eta dantza taldeak ere saioa eskaini zuten Goikoplazan.

Pilotakadaz pilotakada haziz doan txapelketa

KONTZEJUPEKOAK GEROZ ETA IKUSMIN HANDIAGOA SORTZEN DU IKUSLEEN ARTEAN. JOKOA JARRAITZEKO ARKUPEA GAIZTOA DA, ETA HALA ETA GUZTIZ ERE ADI-ADI EGOTEN DIRA IKUSLEAK, LEPOA BIHURRITZEKO MODUAN.

Gazteku pilota eskolako kideak egur batean aritzen dira urteko sasoi honetan, eta haiei segika hainbat eta hainbat pilotazale. Kontzejupekoan zortzi bikote kiroltasun handiz lehiatu dira San Juan jaietan. Asteburu honetan horiek eta bikote gehiago bildu dituen Iturzaeta pala txapelketa herrikoiairen finalak jokatuko dira Sorabillan. Eta hori guztia nahikoa ez eta uztaileen lauan Goiburuko pilotalekuan Gaztetxeko txapelketako finalak jokatuko dira. Gazte askok udari ongi etorria frontoian ematen diote Andoainen.

LOIDI-ARBERAS TXAPELDUN

Txapelketa horien artean finalera iritsi den bakarra Kontzejupekoa izan da. Ikusmina handia zen eta finalistek sortutako ikusmin hori joko onarekin erantzuten saiatu ziren. Finalean Julen Loidi eta Mikel Arberas nagusitu ziren. Gogotik izerditu behar izan zuten Andoni Alvarez eta Unai Etxeberria garaitzeko.

Arantza bakarra emakumezkoen finala izan zen. Antolatzaileek 2015ean emakumezkoen finala jokatuko dela ziurtatu dute.



Jon Eskudero, Miren Agirreurreta, Unai Etxeberria, Julen Loidi, Andoni Alvarez, Mikel Arberas eta Aitziber Ugartemendia sari-banaketa ekitaldian.



Azelain ballet taldekoek ohi bezala ikusle askoren arreta bereganatu zuten.



Taula gainean artistak, eta taula ondoan ere artistak. Gogotsu dabilen gazte asko dago Andoainen.



Kros mistoan nabarmendu ziren kirolariak.



Kartel lehiaketako irabazleak, gaztetxoek eta helduen mailan: Mikel Amenabar, Maider Arabalaza (irabazlea), Garazi Usandizaga eta Juan Manuel Garrido (irabazlea). Haiekin batera, Aitziber Ugartemendia zinegotzia.

Ospakizun ederra Goikoplazan, euritik salbu

ARRATSALDEAN BOTA ZITUEN EURI TANTAK BERE HORRETAN GERATU ZIRENEZ, SAN JUAN SUAREN INGURUKO OSPAKIZUNA BERE HORRETAN BURUTU ZEN. URTERO EREPIKATZEN DEN TRADIZIOA IZANIK ERE, MUSIKA ETA DANTZA IKUSKIZUN EDERRA DA.

Tradizioak maite dituen andoaindarrarentzat, urtean zehar hiru egun sakratuak dira: Santa Krutz eguna, San Juan bezpera eta San Juan eguna. Ekainaren 23an pizten dute San Juan sua, erlijio eta tradizio kutsuko ekitaldien amaiera gisa. Goikoplaza jendez lepo bete aurretik, herritar ugari hurbildu zen San Martin elizara, Udal musika eskolako helduen eta gazteen abesbatzak eta Alberto Agirre abesbatzak eskaini zuten kontzertuaz gozatzera. Unetik garrantzitsuena eta hunkigarriena Salbe Gorena iristean gertatzen da, hiru abesbatzak batera Olagain txistulariekin batera kantuan hasten direnean. Azken urteotan formula hori bera erabiltzen hasi dira Andoaingo ereserkia eskaintzeko.

Elizatik kanpo, soka-dantza euripean burutu zen. Ohi baino laburrago egin zuten, baina hala ere bizia izan zen. Zinogotzi gehienak ere oso maila ona erakusten ari dira, gainera.

Afalostean San Juan sua pizteko ordua iritsi zen. Ohi bezala, musika eta dantza ikuskizun ederra eskaini zuten herriko taldeek. Andoaindarren gogoan geratzen den horietakoa.



San Juan suaren inguruko musika eta dantza festa, andoaindarren gogoan geratzen den horietakoa da.



Urki dantza taldearen saioa, sua apaltzen ari zenean.



Azpiegitura teknikoari esker, San Juan bezperako saioa ikusgarria izaten da.



Erretiroa hartuta duen Jose Luis Etxeberriak Salbe Gorenean zuzendari lanak egin zituen Alberto Agirre abesbatzarekin. Musika eskolako abesbatzarekin eta Olagain txistulari taldearekin kantuan aritu ziren ondoren.



Agustin Leitza elkarteko danborradako kideak, sua piztu eta geroko saioan.

Haurrak eta gazteak, jaietako protagonistak

SAN JUAN BEZPERAN, SUA PIZTU AURREKO ORDUETAN, HERRIKO IKASLEAK IZAN ZIREN JAIETAKO PROTAGONISTA NAGUSIAK. OHI BEZALA AGINTARI TXIKIEK IREKITZEN DUTEN HAUR DANBORRADA IKUSGARRIA IZAN ZEN.

Urtez urte tradizio bilakatzen ari da herriko hiru ikastetxeen artean osatzen den haur danborrada. Haur eta guraso askorentzat ekitaldi gogoangarria izaten da, ibilbidean zehar ikusle askoren arreta bereganatzen dutelako. Haurrentzat hitzorduak ez dira falta San Juan jaietan baina, behar bada, haur danborrada izango da bereziena. Danborradan edo agintari lanetan herriko jaietako protagonista nagusi bilakatzen direlako.

Suak ere erakarmen maila handia du gaztetxoeren artean. Goikoplazan ekitaldi nagusia egiten bada ere, Calonge eta Karrikan auzoetan ere sua parte hartze handiarekin burutu zen. Horietan gutietan haurrak sua piztu eta haren inguruan jolasteko irrikaz izaten dira.

Azken urteotan, gainera, sua eta suziariak maite dituzten haur eta gazte horiek jaietako azken hitzordua iristeko gogoz egoten dira. Su artifizialen orde, kalez kale egiten den su ikuskizunaren atzetik kalejira ibiltzen direlako. Aurreko ere ikusgarria izan zen Cavaldeath su ikuskizuna, ahoa bete hortz uzten duen horietakoa.



Ezker eskuin, irudi ikusgarria osatuz, Aita Larramendi ikastolako, La Salle Berrozpeko eta Ondarreta ikastetxeeko ikasleak haur danborradan.



Karrikako auzotarrek etxetik gertu eta errekararen ondoan su ikusgarria egin zuten.



Ondarreta ikastetxeeko partaideak Haur danborradan.



La Salle Berrozpeko Izartxo taldekoek karroza eraman zuten kalejiraren atzealdean.



Aita Larramendi ikastolako ikasleak Goikoplazarako bidean.

Belaunaldi berrien agerpena Axeri-dantzari

SARASOLA ANAIEN MUSIKAREN DOINUPEAN HERRIGUNETIK GOIKOPLAZARAKO BIDEA KALEJIRAN EGIN ZUTEN. GAZTEEN PARTE HARTZEAREKIN GOIKOPLAZA DANTZARIZ BETE ZEN, IRUDI IKUSGARRIA ESKAINIZ.

Axeri-dantza oparotasunean bizi da, azken urteotan berrogei lagun inguru parte hartzen ari baitira hain bertakoa den tradizioa berritzen. Dantza prestatzeko entseguetan dagoeneko aurreikus zitekeen hori. Pozgarriena, gainera, gazte belaunaldiaren agerpena da. Haiek ikustean, lasai egon daitezke Axeri-dantza sustertu zuten adineko andoaindarrak. Dantzaren etorkizuna bermatuta dagoela esan daiteke. Parte hartzea hain handia izanik, Axeri-dantzako kide bakoitzak ikusleentzako artean herritar bana dantza egitera gonbidatu zuenean plazak itxura ikusgarria hartu zuen. Hamaiketako Zumeatarran egin ondoren, axeriak bertatik irten ziren kalejiran. Goikoplazako saio nagusia amaituta, bazkaltzera Zumeatarrara itzuli ziren. Bertan elkarteari eta sukaldariari esker ona adierazi zieten, nola ez, dantza eginez. Zapi bana jaso zuten elkarteko Lamberto Oterminek, Pako Arnaizek eta Jesus Etxabe “Kañi”k.

Bezperan, euripean, agintarien sokadantza ohi baino laburragoa egin zuten. Azkarra eta bizia izan zen. Zinegotzi gehienak urtez urte hobetzen ari dira.



Alaine Jauregik ohorezko agurra Isabel Arandia amonari eskaini zion.



Parte hartze handiarekin, are eta ikusgarriagoa da Axeri-dantza.



Goikoplazarako bidean, giro ederra Axeri-dantzako kideen artean.



Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantza San Juan bezperako tradizioa.



Aurten larogei urte betetzen dituzten herritarren bazkaria Basteron.

Kaletxikiko Kandido eta kantinera etxe berekoak dira

Joseba eta Marta Oteiza Arabaolaza anai-arrebak ez dira Kaletxikiko bizi, baina bertan dauzkate familia sustraiak, eta jaietan ez dute hutsik egiten. Martak urte mordo darama kantinera gisa danborradan parte hartzen; Joseba, berriz, aurten Kandidoren papera betetzeko hautatu dute.

Nolatan aurten Kandido gisa?

Joseba Oteiza: Aurreko batean, unibertsitateko azterketetarako prestatzen ari nintzela Martak deitu zidan Ontza elkartetik. Jai batzordekoek nire izena proposatu zioten Kandidorena egiteko. Horrela, bat-batean entzunda, ilusioa egin zidan eta baiezkoa eman nion. Egia esanda, ez nekien ondo non sartzen nintzen!

Ohore handia da Kaletxikiko jaietako Kandido izatea, eta laguntza eskatuko diet jai batzordekoek eta ingurukoek, ardura horri dagokion protokoloa egoki betetzeko.

Betidanik ikusi dugun ekitaldia da Kandido eta Txikitxoena, berarekin hazi gara. Gogoratzen naiz txiki-txikiak ginela, amak nola eraman gintuen eskutik helduta Kandido eta Txikitxoek ekitaldia ikustera. Gure osaba izan zen orduan Kandido, eta egun hura oroitzapenean bereziki gordeta geratu zait.

Zuk, Marta, ekitaldi ugarian hartzen duzu parte...

Marta Oteiza: Danborradan batik bat. Kantinera gisa hartzen dut parte, 11 urte nituenetik. Atera nintekeen danbor jotzaile bezala, baina gogoko dut horrela. Oso ondo pasatzen dut.

Bestalde, jaien antolaketan denok ere piska bat lagundu beharko genukeela iruditzen zait, eta horrexegatik, aurten, tabernan lan egiteko asmoa daukat.



Bakartxo, Joseba eta Martaren ama.



Joseba eta Marta anai-arrebak, aurtengo jaietako protagonistak.

Zein ekitaldi dituzue gogoko jaietan?

J.O.: Asteburuan ekitaldi ugari izaten da bata bestearen atzetik, eta denak dira erakargarriak. Hala ere, sagardo txapelketan sortzen den giroa aipatuko nuke. Jende asko etortzen da kanpotik, ezagunak dira asko, eta berrikerian aritzeko momentu polita izaten da.

M.O.: Sagardo eguneko aipatuko nuke nik ere. Aldi berean, pertsonalki, danborradan izugarri gozatzen dut. Ez gara parte hartzaile gehiegi, baina bada-kigu noiz ibili formaltasunez eta noiz umorez.

Igandeko Migel Mari Pagola mendi krosa ere huts egin ezineko hitzordua izan ohi da niretzat. Amona eta aitoren anaia irteten dira oinezkoen proban, eta haiek animatzen ditut. Neu ez naiz kapaz izaten oinezko ibilbidea egiteko, eta gutxiago korrika egiteko; danborradaren ondorengo bestondoari ezin eutsirik egoten bainaz!

Hala ere, Arabaolaza familiarentzat, igande gaua izaten da apartekoa. Denok bildu, eta Ontza elkartean afaltzen dugu. Jaien amaiera egokitzen da, eta oso erritual polita eta nahiko intimoa den batean hartzen dugu parte: gaueko 24:00etan, jaien hasieratik elkartearen sarreran zintzilikatuta egon ohi den bandera jaisten da, danbor hotsez lagunduta. Gauza txikia da, baina badauka xarma berezia dauka gure familiarentzat.

Nola ikusten dituzue Kaletxikiko jaiak?

J.O.: Baxualdi txiki bat izan zuten orain urte batzuk, baina indartsu eta fresko dabilta azken urteetan. Jai batzordea izugarri ahalegintzen da ekitaldi berri eta erakargarriak antolatze-ko orduan. Kaletxikiko kalea jendez gainezka egoten da hiru egunetan, au-

zokoak direnekin eta ez direnekin, eta seinale ona da hori, antolatzaileak programarekin asmatzen ari direla esan nahi baitu.

Zer esango zeniekete irakurleei Kaletxikiko jaietara hurbildu daitezene?

M.O.: Beste urteetatik ezagutzen dutenei, berriro etor daitezela. Ondo dakitenez, oso giro polita sortzen da eta era guztietako ekitaldiekin gozatzeko aukera izaten da. Inoiz azaldu ez direnei, berriz, anima daitezela. Ez dira damutuko; eguerdi, arratsalde edo gau zoragarria igaroko dutelako.

Hamargarren urteurrena



Hamar urte bete ditu **Gora Kale Txiki txar-rangak**, eta ba al da urteurren biribila sortu zen tokian ospatzea baino gauza politagorik? Aparteko musika emanaldia iragarri du txar-rangak iganderako. Berrozpe egoitzaren aurrean, 13:00etatik

Egitaraua, 2014

Ekainak 27, ostirala

- 19:00 Kandido eta bere txikitxuei ongi-erria. Sardin jatea, buruhandiak.
- 20:00 Goizuetako Umore-ona abesbatza Berrozpeko kaperan.
- 21:00 Bokatafari afari herrikoia plazan.
- 22:00 Bakarrizketak Unai Ormaetxea eta Gorka Aginagalderekin.
- 22:30 Mus partidak Buruntza tabernan.
- 23:30 Disko rock remember festa.
- 01:00 Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.

Ekainak 28, larunbata

- 10:00 Eskupilota topaketa Goikoplazan.
- 16:00 XII Karmelo Lasarte plater tiraketa Azpikolako harrobian.
- 12:00 Kaletxikiko XXI. Sagardo txapelketa. Haur parkea: puzgarriak, ludoteka, apar festa.
- 16:30 Karate erakustaldia.
- 17:30 Haur parkea eta buruhandiak.
- 20:00 Ontza elkartean afaria
- 22:15 Danborrada nagusia.
- 23:00 Berbena camp.
- 01:00 Oilasko hotza txanpainarekin Ontza elkartean.
- 01:30 Diskofesta eta apar festa.

Ekainak 29, igandea

- 09:00 Diana.
- 10:00 Kaletxikiko oinezkoen irteera.
- 10:00 VI. mendi krosa, irteera.
- 10:00 Haur arrantza txapelketa.
- 12:00 Meza Berrozpeko kaperan.
- 12:35 Soka-dantza saio irekia, Urkirekin.
- 13:15 Gora kaletxiki txaranga.
- 14:00 XXIV. Kaletxikitarren bazkari herrikoia, Gora Kaletxikirekin.
- 16:30 Gora Kaletxiki txaranga.
- 17:00 Ontza-Batzokia desafioa. Sokatira: Ontza-Batzokia / Ibarra.
- 19:00 Txiki festa Egan taldearekin.

aurrera, Joxe Mari Oiartzabalek sortu edo egokitutako kantak eskainiko dituzte: "Gora Kaletxiki", "Felicitas", "Fernando Uribealzo", "Los Rubi", "When the Saints go marching in" eta "Andoaingo Ereserkia".

Erreportari Gaztea Sariaren sari-banaketa ekitaldia

Erreportari gazteak



Irabazleak aurreko ostegunean, Gazte Lokalean.

Andoingo Udalak euskarazko komunikazioa bultzatzeko hainbat ekimen bideratzen ditu eta Erreportari Gaztea Saria lehiaketa horietako bat da. 17. edizio honetan, 14 eta 18 urte bitarteko Andoingo 65 gaztek hartu dute parte, eta guztira 40 lan aurkeztu dituzte. Ainhoa Arozena, Enekoitz Telleria eta Jon Ander Ubeda aritu dira epaile lanetan eta lanen originaltasuna, datu bilketa, estiloa eta zailtasuna ebaluatu dituzte.

Hala, Erreportari Gaztearen lehenengo saria **Izaro Arruti Agirreurretak** irabazi zuen "Jolasten hezteko, hezi jolasa" lanagatik. Epaileen ustez, jolasa eta jokorearen arteko bereizketa maisuki egin eta aisialdia ardatz duen erreportajeak lehen saria mere-

zi du. Gainera, euskara aldetik lan onena dela adierazi zuten.

Bigarren saria talde lan bati eman diote, **Odile Txueka, Irati Uranga** eta **Goretti Urangari**, hain zuzen. "Mingaina dantzatzuz, euskara dastatzuz" izenburupean Andoingo euskararen erabilera ardatz duen erreportajea da.

Hirugarren postua **Iker Badalok** lortu zuen, "Negarra" erreportajearen originaltasunagatik eta planteamenduaren ausardiagatik.

Azkenik, epaimahaiak aipamen berezia ematea erabaki zuten, **Nerea Jorgeren** lanari, gaitasun arraroak gizarteratzea lortu duen "Miopatia Central Core" erreportajea lantzeagatik.

Ekitaldian lan guztiak erakutsi zituzten ikus-entzunezko baten bidez. Aurten bakarkako

Lehenengo saria Izaro Arruti Agirreurretak irabazi zuen "Jolasten hezteko, hezi jolasa" lanagatik

lanak nabarmendu dira, baina erreportajeak taldean egitea zailagoa denez, datorren urtera begira taldekoak egitea sustatu nahi dituzte.

Sariak banatu ondoren, Berria egunkariko hiru kazetari kirol kazetaritzari buruz hitz egiten aritu zaitzaizkien gazteei. Londresko Munduko Kopan egindako lana eta bertan izandako esperientzia eta bizipenak kontatu zizkieten. Berriak lan hori egiteagatik Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren sari nagusia eskuratu zuen, iaz.

"Inork ez dezala mota honetako erasorik onartu"

Jaietan eraso sexistei aurre egiteko kanpaina

Andoingo Udalak, San Juan jaietan atarian, uda honetako festetan eraso sexistak ekiditeko kontzientziazio kanpaina abiatu du: "Behar-beharrezkoa da guztiok, jendarteak, esfortzu handiagoa egitea mota honetako eraso sexistak jendartetik kanpo uzteko; baita jaietan ere. Inork ez dezala mota honetako erasorik onartu".

Emakumeek ere jaiak askatasunez gozatzeko eskubidea dutela gogorarazteko, Andoingo Udalak kontzientziazio kanpaina abiatu du San Juan jaietarako. "Hemen ez da eraso sexistarik onartzen" dioen kartelak banatu zituzten jai-guneko ta-



Miren Agirreureta eta Ana Carrere kanpainako kartel eta pegatinekin.

bernetan, eta "Ez pasatu, ez jarri, ezetz da ezetz!" edota "Jaiak + errespetua = gozame-

na" zioten pegatinak ere banatu zituzten. Kanpainak jarraipena izango du.

Juan Jose Ibarretxeren hitzaldia Basteron

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak hitzaldia eskainiko du Basteron, EAJ-PNV alderdiak antolatzen duen "Andoain aurrera" foroan. Ekainaren 6an Arantza Tapia sailburua izan zen, eta oraingoan lehendakari ohiak "Geroa gurea da" izenburupean hitzaldia eskainiko du. Hamabost egun atzera, Juan Jose Ibarretxek hitzaldia eskaini zuen Tolosan eta bertan autogobernua, inde-



pendentzia, Europa edota etorkizuneko erronkak hizpide izan zituen.

Ekaineko Udal batzarraldia

Mozio ezberdinek osatu zuten aurreko asteazkeneko Udal batzarraldiaren oinarria. Alde batetik, etxabe edo lokalen inguruko ordenantza onartu zuten.

Bestalde, herriko presoen senideei dirulaguntza partida onartu zen Bildu eta EAJren aldeko botoekin, eta PP eta PSE-EEkoen ezezkoarekin.

Espetxean hilabeteak eman eta gero, kalean dagoen Ruben Genbeltzu ere hizpide izan zen Udal batzarraldian. Elkartasuna adierazten dion herri ekimenak sustatuta, andoaindarraren aldeko mozioa aztergai izan zen. Mozioak hiru oinarri zituen: lehena, "espainiar gobernuak aurrera daraman estrategia politiko-judiziala" salatzeari; bigarrena, "hiritar oroaren eskubide zibil eta politikoaren errespetua" aldarrikatzea, "baita Ruben eta honen familiari dagozkionak ere". Eta hirugarrenik, Espainiako Entzutegi Nazionalari, kausaren artxibatzea eskatzea.

Eztabaida bizia sortu zen, batik batik Asun Guerra PPko zinegotziak hitza hartu eta gero. Popularrak "Etakide" izatea leporatu zion Gelbenztzuri, eta hari erantzunez ikusleen artean zegoen herritar batek errugabetasun

printzipioa urratzea aurpegi-ratu zion. Herritar horrek, bide batez, PSE-EEko Udal taldea salatu zuen aurreko asteetan Rubenen aldeko elkartasun taldearekin bildu nahi ez izanagatik.

Juan Carlos I Espainiako erregearen abdikazioa dela eta, Bilduko Udal taldeak mozioa aurkeztu zuen: "Andoingo Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzen dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen Espainiako Koroaren inongo ordezkariari". Mozioa Bilduko zinegotzien aldeko botoekin eta EAJko ordezkarien abstentzioarekin onartu zen. PSE-EE eta PPkoak mozioaren aurka agertu ziren.

PSE-EE alderdiak gai honi buruzko mozio alternatiboa aurkeztu zuen, baina ez zen aurrera ateratu.

Azkenik, alderdi sozialistak haurren elikadura bermatzeko planari buruzko mozioa aurkeztu zuen udalbatzan. Mozioan Jaurlearitza jangela zerbitzua bermatzea eskatzen zen. PSE-EEK PPren eta Bilduren oniritzia jaso zuen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Arozena eta Zabala nagusi Iturzaeta finalean



ITURZAETA IV. MEMORIALA

Ekainak 20, ostirala.

22:00. Arrate. Pala motza.

Arozena-Zabala 40
Iradi-Mariñelarena 27

Finala. Hasteko eta behin Garatek izan behar zuen Iradiren bikotea baina azken orduko beste konpromiso bat dela eta, Mariñelarenak ordezkatu zuen.

Ligaskako azken partidatan eta finalurrekoetan bezala, partida bizia izan zen finalekoa. Arozena gairdiezin aritu zen, sekulako joa erakutsiz. Aurkariek ezin izan zuten haren indarra gelditu. Zabala bere bikoteak atzean lan oso ona egin zuen, sakea bikin ateraz eta aurrelariari ahalik eta laguntza gehiena ematen.

Galtzaileen artean, Iradik ezer gutxi egin ahal izan zuen. Mariñelarenak Arozena gairditu zuen tanto kopurua eskuarekin konta daitzke. Biek ere ezin izan zuten ia ezertxo ere egin Arozena gelditze-ko. Sekulako txapelketa egin du irabazleak.

Ikusitakoak ikusita, ondo merezita jantzi zuen txapela Arozena-Zabala bikoteak.

Julen Loitegi

Eskuko min handia duen arren, Julen Loitegi Urnietako pilotariak Euskadiko trinkete bikotekako txapelketa jokatzeko hautatu dute, elite mailan. Euskal Federazioak aukeratu dituen 16 pilotarien artean lehiatuko da. Zorte on!


Kros mistoa San Juan jaietan: parte hartze txikia, giro handia




Leire Fernandez eta Mikel Fernandez irabazleak.



Karen Ortiz de Guinea eta Peio Alkorta, bigarren.




Josune Etxezarreta eta Patxi Nieto, hirugarren.




Amaia Lacalle eta Juanjo Moreno.



Julen Urio eta Mamen Kapaldegi.




Roger Wesney eta Oihana.




Sergio Garcia eta Edurne Basterra.



Beatriz Villasboa eta Javi Soto.



Josu Villaseñor eta Rakel de Jesus.



Oihane Moreira eta Aitor Lavado.



Ainara Leibar eta Ibon Garcia.



Idola Fernandez eta Juanfran Venero.



KIROL ALBISTEAK

Mikel Alonso hirugarren izan zen gazte mailako Gipuzkoako Itzulian

Gipuzkoako Itzulia, XXV. edizioa

Aia-aia

140620 | 1. etapa

1. Barthe, Cyril
2. Alonso, Mikel
3. Olaizola, Aratz
9. Dani Maiora

* Taldeka: 1. Andoaingo.

Olaberría-Olaberría

140621 | 2. etapa

1. Maiora, Dani
2. Barthe, Cyril
3. Olaizola, Aratz
4. Alonso, Mikel

Andoain-Andoain

140622 | 3. etapa

1. Iburguren, Oier
2. Solaun, Julen
3. Aurell, Lucas
4. Aramendi, Dorian
5. Rodríguez, Aitor
6. Barthe, Cyril
7. Alonso, Mikel
8. Dominguez, Yeray
9. Munitxa, Jon
10. Manterola, Peio

Segura-Segura

140623 | 4. etapa

1. Azurmendi, Ibai
2. Arlegi, Manuel
3. Maiora, Dani
4. Barthe, Cyril
11. Alonso, Mikel

Sailkapen nagusia:

1. Maiora, Dani
2. Barthe, Cyril
3. Alonso, Mikel
27. Manterola, Peio



Dani Maiora (Ampo-Caja Rural) txapeldun izan da Gipuzkoako Itzulian, Cyril Barthe (Aviron Bayonnais) eta Mikel Alonso (Andoaingo) txirrindularien aurretik.



Andoaingo helmugan Oier Iburguren (Atracciones Sanz) nagusitu zen.



Peio Manterola Andoaingo podiumean.



Finalak Iturzaeta txapelketa herrikoian

Iturzaeta batzordea

"104 pilotari lehia ibili ondoren, larunbat honetan arratsaldeko 17:00etatik aurrera nesken eta mutilen mailako final-aurrekoak eta finalak jokatu dira. Arratsalde berean jokatu dira, beraz finalistek denbora tarte txikia izango dute indarrak berreskuratu eta finalei aurre egiteko. Final-aurreko partidak orekatuak eta gogorrak izango direnez, indarrak zeresan handia izango du finalaren azken minutuetan.

NESKAK

Hamabi bikote abiatu ziren eta lau besterik ez dira geratzen. Batetik, Ainara Loiarte-Irati Amondarain iazko txapeldunak eta Ainarika-Izarne bikotea.

Beste final-aurrekoan, ligaskan partida guztiak irabazi dituen Garbiñe-Amaia Sorabillako bikotea Amaia-Eneritzen aurka lehiatuko da.

MUTILAK

Mutilen ere oreka aurreikusten da. Andoni-Arruti dira orain arte urtero finalera iritsi diren bakarrak. Orain bi urte txapeldunak, eta iaz txapeldun-ordeak. Aurrez aurre bikain aritu diren Rekalde-Otermin izango dituzte.

Beste final-aurrekoan iazko txapeldunak, Loidi anaiak, Eskudero anaien aurka lehiatuko dira. Ariz anaia gazteena jokalaria onenetsua izaten ari da".

PARTIDEN ORDUTEGIA:

17:00. Neskak, finalaurrekoa: Garbiñe-Amaia // Amaia-Eneritz.
17:30. mutilak, finalaurrekoa: Eskudero Anaiak // Loidi Anaiak.
18:00. Neskak, finalaurrekoa: Ainara-Irati // Ainarika-Izarne.
18:30. mutilak, finalaurrekoa: Arruti-Andoni // Otermin-Rekalde.
19:00. Nesken mailako finala.
19:30. Mutilen mailako finala.
20:00 Sari Banaketa ekitaldia.
*Oharra: Euriarekin, jokatu ala ez bertan erabakiko da.

Zesta punta eta pala motzeko finalak



San Juan jaietako pilota txapelketako finalak jokatu ziren Arraten, ekainaren 21ean. Giro bikaina izan zen pilotalekuan.

Zesta punta

Infantilak:

Andoain 15-30 Zumaia

Infante/A.Garcia

Nagusiak, 2. maila:

Narbarte-Borrero 35

A.Garcia-Aduriz 19

Nagusiak, 1. maila:

Andoain 35

(Lizasoain-I.Garcia)

Donibane Lohitzune 34

(Ado- Julien)

Pala motza, nagusiak:

X.Iburguren-Begiristain 30

B.Iburguren-Rekalde 40

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etbez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izabea Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.



Agenda

EKAINAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ "A veinte pasos de la fama".

Ekainak 28, larunbata.

19:30-22:00.

Ekainak 29, igandea.

19:30.

Ekainak 30, astelehena.

19:30-22:00.

Dantza

Urnietan

■ "In-Fusioak" jaialdia, Egape dantza taldeak antolatuta.

Egaperen saioa:

17:00 Saio itxia.

19:30 Saio irekia.

Kataluniako Falcons de Vilafranca-ko kideen erakustaldia:

18:30 San Juan plaza.

Ekainak 28, larunbata.

Erakusketak

Andoain

■ Kultura batzordeak antolatutako ikastaroetako ikasleek egindako lanak: pintura, egur-taila, eskulanak eta panpinak ere.

Ekainak 27-28.

Odol emaileak

Eskualdea

■ Andoain. 18:30-20:30.

Uztailak 8, asteartea.

■ Urnietan. 18:30-20:30.

Uztailak 14, astelehena.

Jaiak

Andoain

■ Kaletxikiko jaiak.

Egitaraua gehigarrian.

Ekainak 27-29.

■ Karrikako jaiak.

Uztailak 18-20.

Asanblada

Urnietan

■ Gazteek deituta.

18:00. San Juan plaza.

Ekainak 27, ostirala.

Sariketak

Andoain

■ Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, sari banaketa ekitaldia.

12:00. Bastero.

Ekainak 28, larunbata.

Bertsoak

Urnietan, Besabi

■ Sustrai Colina eta Amets Arzallusekin bertso afaria, Jon Lizarribar eta Ruben Genbeltzuren alde. Txartelak salgai: Kanto, Besabi, Xauxar.

Uztailak 4, ostirala.

Azoka

Andoain

■ Bigarren eskuko azoka. Izena emateko azken eguna, ekainaren 27a.

10:00-14:00. Zumea plaza.

Uztailak 5, larunbata.

Ikastaroak

Urnietan, Sarobe

■ Pilates, yoga edota gimnasia hipopresiboa. Ikastaroak goizean nahiz iluntzean eskainiko dituzte, astean zehar.

Info: 943 00 80 42.

Uztailak zehar.

Eskualdea

■ Euskara ikasteko aukera zabala Buruntzaldean, AEK-ren eskutik. Argibide gehiago orrialde honetan bertan.

Aisialdia

Andoain

■ Uda Gaztea 2014: Gozogintza tailerra, piraguismoa Leitzaranean, Goma Eva tailerra, txapa tailerra, kirola abentura parkera irteera, ... Gazte Lokala.

Uztailak zehar.

Urnietan

■ Gaztelekuaren eskutik, ekainean eta uztailan.

Ekainak 30, astelehena:

Henna tatuaiak.

Uztailak 1, asteartea:

Bonboi kutxa tailerra.

Uztailak 2, asteazkena:

Irungo Skate parkera.

Uztailak 3, osteguna:

"Atrapasueños" tailerra.

Uztailak 9, asteazkena:

Amaiera festa.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



ZORIONAK



Nahia, zazpi muxu goxo etxekoan paritez. Ane eta ama.

URNIETA



ZORION
AGURRAK
diseinua@aiurri.com

Ekainaren 26an

Jone gure etxeko txikiak 7 urte bete-ko ditu. Zorionak polita eta ondo-ondo pasa zure urtebetetzean! Etxekoak.

ANDOAIN

Udan euskara trebatzeko aukera eskualdean

ANDOAIN

AEKk jakinarazi nahi du EGA azterketa eta 3. maila lantzeko ikastaroa sortu dela udan. Klaseak uztailaren 1ean hasiko dira eta 09:00etatik 12:00etara izango dira. Uztailak zehar eskolak emango dira, abuztuaren 1etik 12ra eskolak emango dira. Ikastaro honetan izena ematen dutenek, aukera izango dute bai EGA azterketa egiteko bai HABEK antolatzen dituen 3. mailako azterketa egiteko ere, bi aukera alegia. Taldea osatu bada ere, oraindik bada aukera izena emateko eta interesatuek Andoingo AEK euskaltegira jo dezakete (Extremadura kalea, 5 behea).

Informazioa: andoain@aek.org
943 591 704.

URNIETA

Ikasturtea amaitutakoan ere euskara lantzen jarraitu nahi duenak izango du aukera Hernaniko eta Astigarraga-ko AEK euskaltegian.

Eskaintza zabala da uda honetarako prestatu dutena. Klaseak uztailan eta irailean eskainiko dituzte.

Autoikaskuntza sistemarekin EGA edo Haberen urriko azterketak lantzeko aukera izango da.

Horrez gain, azterketa lantzeko taldeak izango dira eta amaitu berri den ikasturtean zehar ikasitakoa mantentzeko edota dakizun hori, gutxi bada ere, praktikan jartzeko mintzamen taldea eta maila baxuko taldea izango dira.

Informazioa: hernani@aek.org
607 592 864 / 607 610 687.

JOXE MARI ITURZAETA
PALA BELAUNALDI BAT

Iturzaeta pilotariaren biografia

20 €

Liburua Stop, Ernaitza eta Delgado liburudendetan eta Aterpe tabernan dago salgai

